


## ezagutzen al duzu Donostia?

### Larratz

Hiritik urruti, Igoin mendiaren inguruan Donostia Landarbasoko lur-raren jabea da; Hernani, Orereta eta Astigarragako udal dermioek inguratzen dute, beraz Donostiako barrendegi bat da. Larratz baserri ederra lur honetako haundiena da. Hiru bizitza zituen, errekan kokatuak (gaur zoritxarrez zeharo desitxuratua dago. Ikus argazkia). Leku zoragarrian dago kokatua, egutera aldeko bizkar batean. Larratz artzain etxe haundi bat izan da beti. Sarobe nagusi haundi baten erdian egonik, garai batean Urumeako zilegien ("Montes Francos" espainieraz) zati zen. Urte asko ez dela oraindik, etxe honetan sukalde-erdiko su zahar bat zegoen. Donostiako sukalde zaharrena

izango genuen ziur aski! Larratzeko barrutien inguruan Landarbasoko kobak aurkitzen dira, gure historiaurreko leku famatua. Dermioz Oreretakoak izan arren, Larratz baserriaren azpikaldean daude, beraz, Larratzen historiaurretik jendea bizi izan da.

JOSU TELLABIDE



Ximon

## kantutegia



J.I. ANSORENAK proposatua  
testua: AITA DOMINGO MEAGNER

### Ziri bertsoak asto kontuak

Ikusirik pasatzen astoak ugari, aita batek, algaraz dio semeari:  
"Begira hakio, Pello, hire anaiari"

Semeak berehala erantzun du: "ene! horiek nere anaiak? ez nuen nik uste berorrek zituela horrenbeste seme".

### Madalenen arrazoiak

Madalen ezkondu zan bertsolari batekin. Zortzigarren hilean poz haundiarekin, eder eta galanta seme bat du egin.


Ama suhiaren kontra pozoitua dago, ta alabak esaten du; "Nola geroago, zortzikoak egiten ohituta badago?"

Serafin Barojak (1840-1912) jarri zituen bertso hauek. Eta Raimundo Sarriegik musika egokitu. Lehen-dabizikoa, batez ere, oso ezaguna zen mende hasierako Donostian. Pio Baroja idazlearen aita zen Serafin hau.

### Horiek agian ez dute behar,



eta zuk?



- Euskarazko lehen Hiztegi Entziklopedikoa
- 12.000 euskaldun hitzarturik obra honetan harpidetzaren bitartez
- 8. alea kalean dagoeneko



Obra honi buruz informazio gehiago jaso nahi nuke, bestelako konpromezurik gabe.

Izen abizenak .....

Helbidea .....

Herria ..... P.K. ....

Lanbidea .....

Tel. ....

Moztu eta beheko helbidera bidal ezazu.  
LUR argitaletxea • Usandizaga kalea, 17 • 20.001 - DONOSTIA